



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen dugun taldeok honako ERDIBIDEKO ZUZENKETA hau egiten diogu EH Bildu Taldeak aurkeztutako Legez besteko proposamenari, 10\11\02\01\0945 espediente zenbakia duenari, "euskal ikus-entzunezko sektorea indartzeko eraginkorrak diren neurriak hartu eta bitartekoak jartzeari buruz".

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

Eraginkorrak diren neurriak hartu eta beharrezko bitartekoak jar ditzala Espainiako Zinemaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) harturiko neurrien eta zinema sektorearekiko laguntzen arloan emandako aldaketen ondorioak arintzeko.

ICAAren arautegia berraztertzea lortzeko ahaleginak bikoiztu ditzala, espresuki zailtasun bereziko pelikulak babesteko, europar araudiaren ildotik (Estatuko

A LA MESA DEL PARLAMENTO


Los grupos abajo firmantes presentamos la siguiente ENMIENDA DE TRANSACCIÓN a la Proposición no de Ley del grupo EH Bildu, con número de expediente 10\11\02\01\0945, "sobre adopción de medidas y establecimiento de medios efectivos para la potenciación del sector audiovisual vasco".

ENMIENDA DE TRANSACCIÓN

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

Que adopte medidas y establezca los medios necesarios para paliar las consecuencias de las decisiones adoptadas por el Instituto de Cinematografía y de las Artes Audiovisuales (ICAA) y de los cambios producidos en materia de ayudas al sector del cine.

Duplicar esfuerzos para conseguir que se revise la normativa del ICAA, en especial las medidas de apoyo a las películas de especial dificultad en la línea de la



hizkuntza koofizaleko filmak, euskara kasu, zuzendari berrienak, birsorkuntzako dokumentalak, etab.), haiei zuzendutako funtsa berreskuratuz.

Euskal zinemagintzako enpresa arloarentzat laguntza eredu bat ezar dezala, egindako inbertsioan zinema sektorearentzako portzentaje bat bermatuz, eta era berean datozen aurrekontu proiektuetan ikus-entzunezko industriaren sustapena ekarriko duen funts bat ere ezarriz.

Hau guztia sektoreko enpresa, eragile eta profesionalekin elkarlanean eta euren parte-hartzearekin diseinatu eta garatu dezala.

2016ko ekainaren 13an


EITZ BILDU

normativa europea (películas en las lenguas cooficiales del Estado, como es el euskera, películas de nuevos realizadores, documentales de recreación, etc.), recuperando el fondo destinado a ellas.

Establecer un modelo de ayudas para el conjunto de las empresas del sector del cine vasco, garantizando un porcentaje de la inversión realizada en el sector del cine, así como estableciendo un fondo en los próximos ejercicios presupuestarios destinado al fomento de la industria audiovisual.

Que todo esto lo diseñe y desarrolle en colaboración y con la participación de empresas, agentes y profesionales del sector.

13 de junio de 2016

Ss/ES
